

JUAN DE LA CIERVA 2019 **DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA:** ***"Incorporación" modalitatea***

Dirulaguntzen ezaugarriak:

MCIUk 225 laguntzatarako deialdia egin du doktore gazteen lan kontratazioa suspertzeko, doktoregoaren ondoko lehenengo prestakuntza fasean berenganatutako gaitasunak finkatze aldera. Lau plaza gordetzen dira % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuek **hiru urteko** iraupena izango dute, gehienez. UPV/EHUn hasiko diren onuradunek 25.000 euro gordin jasoko dituzte urtean.

Horrez gainera, 6.000 euroko laguntza gehigarria emango da, kontratatutako pertsonak ikerketa jarduerekin zuzenean loturik dituen gastuak ordaintzeko.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Baldintzak deialdiko oinarrien 65. artikuluan kontsulta daitezke.

UPV/EHUko tutoreek bete beharreko baldintzak:

Tutoreek bermatuta eduki beharko dute funtzionario lotura edo lan kontratua UPV/EHUekin eskaera aurkezten denetik laguntzak dirauen 3 urteak amaitu arte.

Tutoreak, modalitate honetan, eskaera bakarrean ager daitezke tutore gisa. Baldintza hori bete ezean, bi eskaeretatik kanpo geldituko dira.

GARRANTZITSUA:

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du balidatuko baldintza hori betetzen ez duen eskaerarik.

Eskaerak aurkezteko epea hautagaientzat:

2019ko abenduaren 17tik 2020ko urtarrilaren 21eko 14:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Hautagaiek berek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du aurkeztutako eskaerak balidatzeko, **2020ko otsailaren 21era arte**, hain zuzen ere.

Hautagaiek aurkeztu beharreko eskaera:

Eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>
2. Eskaera egiteko formularioa [aplikazio](#) honetan bete behar da.

Komeni da [ohiko galderen zerrenda](#) kontsultatzea MCIUren webgunean.

UPV/EHUko izapidea:

UPV/EHUn adskribatu gura duten hautagaiek dokumentazio hau igorri beharko dute **2020ko urtarrilaren 14ra arte (hori ere barne)** pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. [Hautagaiaren CVNa](#)
- c. NANaren fotokopia
- d. Doktore tituluaren fotokopia
- e. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura daitekeen eredu.
- f. [Tutorearen CVA](#)
- g. Ikertaldearen historial zientifiko eta tekniko (5 urtekoa).

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du balidatuko epez kanpo igorritako dokumenturik duen eskaerarik.

GARRANTZITSUA:

Bestalde, eskaera egiteko formularioa jatorrizko sinadurarekin bidali beharko dute **PAPER EUSKARRIAN** posta ziurtatuaren bidez edo barruko postaz helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa z/g
48.940 Leioa (Bizkaia)

MCIUko kontaktua:

Eskatzaileek MCIUri egin ahalko dizkiote kontsulta administratiboak zein informatikoak formulario honen bidez:

http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/consulta_ayudas

UPV/EHUko kontaktua:

Zerbitzuaren hobe beharrez, kontsultak posta elektronikoen bidez bidaliko dira pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, gaiaren eremuan "Juan de la Cierva-Incorporación" adierazita.

Informazio gehiago:

[Esteka](#)